

TAFALLAKO HAUR ESKOLAN MATRIKULA EGITEA. 2013-2014 IKASTURTEA

MATRIKULA EGITEKO EPEA MAIATZAREN 24TIK 31RA

1.- DATUAK:

Haurren izen-abizenak:.....

Jaiotze data: Helbidea:

P.K..... Herria: Telefonoak:

Gurasoen edo tutorearen izen-abizenak:.....

.....

2.- HIZKUNTZA-EREDUA:

- Euskara/Gaztelania eredia (2013ko Bularrekoak, 2012ko Ertainak eta 2011ko Handiak)
 Gaztelaniazko eredia (2012ko Ertainak eta 2011ko Handiak)

Ikastetxearen antolaketa beharrak hala eskatzen duenean, haurrak adina edota hizkuntzaren arabera taldekatuko dira. (Uztailaren 25eko 72/2012 D.F.)

3.-JARDUNALDI MOTA: OSOA


- Jantokirik gabe, irteera 12:30ean, Zentrora itzultzen ahal da 15:00etatik 16:30era.
 Jantokia barne, irteera 13:30ean.
 Jantokia eta lokuluxka barne, 15:00etatik aurrera irteera.

Behar izanez gero, ikasturtearen hasieran hautatutako aukera aldatzen ahal da.

2013koren-(e)an gauzatzen da matrikula Tafallako Udaleko Haur Hezkuntzako Udal Zentroko Lehen Zikloan, 2. atalean agertzen diren aukerak zehazturik, 4. atalean adierazten diren agiriak emanda, eta otsailaren 22ko 21/2013 F.A.n finkatzen diren oinarrietan agertzen diren konpromisoak onartu eta gero (Atxikitzen da).

_____, 2013ko _____aren ____-(e)an

Aita/ama/tutorearen sinadura



4.- EKARRI BEHARREKO AGIRIAK:

4.1.- EKARRI BEHARREKO AGIRIAK (IKASLE BERRIEK):

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartilaren fotokopia edo bere osasun txartelaren fotokopia.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2012ko Aitorpenaren fotokopia –aitarena eta amarena- (dokumentu hau aurkezteko eguna 2013ko ekainaren 30era arte atzeratzen ahal da) edo Errenta Aitorpena egin beharrik ez badu, Nafarroako Gobernuaren egiaztatzea aurkeztu.
- Ordainagiriak helbideratuko diren banketxeko libretaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertuz.
- Familia-liburua osoaren fotokopia (soilik bularreko haurren kasuan edo aldaketaren bat egon bada).
- Elikadura edo osasun aldetik behar bereziak izanez gero, horiek biltzen dituen mediku-txostena.

4.2.- EKARRI BEHARREKO AGIRIAK (DAGOENEO ZENTROAN BADAGO):

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2012ko Aitorpenaren fotokopia (aitarena eta amarena). Dokumentu hau aurkezteko eguna 2013ko ekainaren 30era arte atzeratzen ahal da. Errenta Aitorpena egin beharrik ez badu, Nafarroako Gobernuaren egiaztatzea aurkeztu.

4.3.- EKARRI BEHARREKO AGIRIAK (DAGOENEO ZENTROAN BADAGO ETA ALDAKETAK EGON BADIRA):

- Ordainagiriak helbideratuko diren banketxeko libretaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertuz.
 - Familia-liburua.
 - Besteak: _____
-
-

OHARRA: Eskatutako dokumentazio guztia barnean EZ DUEN MATRIKULA, ez da jasoko, salbu 2012 urteko errenta aitorpena.

_____, 2013ko maiatzaren ____ (e)an

Aita/ama/erantzule legalaren sinadura

Haur Eskolako fitxategia

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko argibideak.

Inprimaki honetan jasotzen diren haurren, beren guraso edo tutoreen datuak Udalak duen **Haur Eskola Fitxategian** sartuko dira, eta haren helburua izango da Haur Eskolako haurren arreta zerbitzua eskaintzea.

Datu eguneratuak izatearren, zerbitzu ona eskaintzearren eta haurren arduradunak lasaiago egotearren, emandako datuetan gerta daitezkeen aldaketak ahalik eta lasterren jakinarazi egin behar dira Eskolan. Bereziki garrantzitsuak dira arduradunak aurkitzeko datuak.

Haurren tutore edo gurasoek haurren eta beren familien **datu pertsonalen tratamendua espresuki baimentzen dute** Haur Eskola barruko zerbitzuetarako.

Datuen balizko lagapena tutore edo gurasoen onespenerekin egingo da, salbu lagapen hori baimentzen duen Legea baldin badago.

Gurasoek edo tutoreek Datu Pertsonalen Babeserako Legeak aitortzen dituen eskubideak erabili ditzakete: **Sartzeko eskubidea, Zuzentzeko eskubidea, Baliogabetze edo Aurkakotasun eskubidea**. Bideratze hau Tafallako Udaletxeko Bulegoan egin ahal izango da, F. Navarra plaza 5 zbk.an - 31300 Tafalla

Halaber irudiak-argazkiak, diapositibak, bideoak, KDak, DVDak jasoko dira honako helburu honekin: haurren prozesu edota garapen eta ezagutza egoerak dokumentatzea helburu pedagogiko-didaktikoa bilatuz. Edozein modutan ere, haurraren identifikazioa bere izenez izango da, ez abizenekin.

Irudi hauek ikusi ahal izango dituzte bai haurrak, bai gurasoak, bai familiak, bai hezitzaileak eskolan antolatzen diren bileretan edo eskolako dokumentazio guneetan (panelak, bildumak, ea); modu berean, irudi hauek helburu pedagogiko-didaktiko berdinak bilatuz, erabili ahal izango dira beste eskola batzuetan, ikastetxeetan edota argitalpenetan.

Eskatzen duten familiei, haurra Eskolatik igaro den oroigarri moduan, irudien kopia emango zaie.

Aipatutako helburuak bilatuz, haurren irudien tratamendua egin ahal izateko zuen aukera adieraztea eskatzen dugu, baimenduz edo ez baimenduz:

Haurraren izena:


Baimentzen dut

Ez dut baimentzen

Sinatua: Aita/Ama edo Tutore legala:

Tafalla, 2013ko.....aren..... (e)an

Sinadura,



TARIFAK EZARTZEN DITUZTEN OINARRIAK **Otsailaren 22ko 21/2013 F.Aren arabera**

1.- 0-3 urte bitarteko haurren arretarako Udal Eskoletako tarifen kalkulak lehen aipaturiko Foru Aginduak finkatzen ditu.

2.- Matrikula formalizatzeak **ikasturteko eskolatzeko aldiko 10´6 hileko ordainketa guztien** konpromezua dakar. Zentroa irekitzen den 204 eguni dagozkion hileko kuota dira, urtarilaren 28ko 31/2013ko Ebazpenak finkatzen duen bezala.

3.- Familiak matrikula kontzeptuan kuota ordainduko dute, ikasturteko eskolatzeari dagokion tarifa. Aipaturiko kuota, ondoren konpentsatuko da ekaineko ordainagiriarekin. Uztailean tarifaren 0,6a kobratuko da.


4.- Familia bakoitzari dagokion tarifa kalkulatu da per capita errentaren arabera eta berbera da ikasturte osorako, familia unitatean eman daitezkeen aldaketak aldaketa, alegia familia kideen gehitzea edo gutxitzea, datu hauen gainean kalkulatu baitzen per capita errenta.

5.- Tarifak prezio publiko mailakoak dira eta Udaleko arau fiskalak finkatzen ditu bere 8.zenbakian, zeinak 0-3 urte bitarteko Haur Eskolako Laguntza Zerbitzuaren prestazioari dagokion prezioa arautzen baitu eta 10´6 hileko ordainketa osorik alde aurretik ordaintzea finkatzen baitu.

6.- Behin ikasturtea hasita dagoela matrikula egiten baldin bada, haurra noiz sartu zen Zentroan kontuan hartuko da ordainketa egiteko eta hilari dagokion tarifa zati proportzionala ordainduko du, benetako zerbitzu egunak kontuan hartuz.

7.- Jantoki Zerbitzuko erabiltzaile matrikulatuak jantokiari dagozkion hileko ordainketa guztiak ordainduko dituzte, zerbitzu guztia erabiltzen ez badute ere. Frogaturako kausa denean (gaixotasuna edo ospitalean sartzeko) 15 egun natural baino gehiago jantokitik kanpo egon behar denean edo erabiltzaileari egotzi ez dakizkokeen kausak direla eta, jasotako zerbitzuari dagokiona baino ez du ordainduko.

8.- **Derrigorrezko baja eragingo du** ikasturtea hasi eta **hamabost egun naturalen buruan ikastetxera joan ez den** edo, **behin ikastetxean hasita justifikatu gabeko hamabost egunez ikastetxera agertzen ez den haurrak**. Kasu hauetan erakunde titularrak idatziz jakinaraziko dio familiari haurraren baja eta jakinarazpena jaso eta hamabost egunen buruan gauzatuko da. Familiak eskolatzeari eta jantokiari dagozkion bajaren gauzatze data arteko kuota ordainduko du, gehi hilabete bateko kuota eragindako gastuengatik. 3. puntu finkatzen den bezala, ez da fidantza-matrikula itzuliko.



9.- Ikasturtean zehar ematen diren **borondatezko bajak**, kausatu baino 15 egun lehenago jakinaraziko dira idatziz. Bajaren gauzatze data arteko kuota ordainduko du, gehi hilabete bateko kuota eragindako gastuengatik konpensazio/fidantza gisa. **Baja frogatua denean**: seme-alabaren gaixotasuna, bizileku aldaketa, langabezia edo bat-bateko ezegonkortasun ekonomikoa denean ez da itzuliko fidantza, eta ez da konpensazio hilabetea kobratuko.

Plaza mantenduko da dagozkion hileko ordainketak ordainduz (eskolatze-aldikoa gehi jantokiko laguntzailea) ez-joatearen arrazoia 15 egun lehenago jakinarazten den kasuetan eta beti ere hilabete eta erdi bat pasatzen ez denean.

Jantoki zerbitzuan baja ematen denean, familiak jantokiko laguntzaile zerbitzuari dagokion zati proportzionala (baja kausatzen den artekoa) ordaindu beharko du. Baja eskaera egin eta handik 15 egunetara burutuko da.

10.- Matrikula egin eta gero borondatezko baja ematen denean eta **ikasturtea hasi baino 15 egun lehenago jakinarazten bada**, fidantzapean ordaindutako diru kopurua itzuliko da.

Borondatezko baja eskatu eta gero, jantokia berriro erabili nahi badu, zentroak denboraldi horretan mantendu duen Laguntzaileari dagokion zatia ordaindu beharko du.

11.- Familiek ez ordaindutako kuotak Erakunde titularrak errekerituko ditu, hala eta guztiz ere haurrari baja emango zaio bi hilabeteko ordainketa egiten ez denean. Kasu hauetan fidantza gauzatuko da.

2013-2014 IKASTURTEA

I. MATRIKULA EPE OFIZIALA

Onartuta eta plaza erreserba duten haurren familiek matrikula gauzatuko dute 2013ko maiatzaren 24tik 31ra Udaletxeko Bulego Bakarrean.

Ezarritako epean gauzatzen ez diren matrikulak esleipen berrian sartuko dira, itxaron zerrendan agertutako hurrenkeraren arabera.

II. TARIFAK

Urteko per capita** errentaren arabera, hilerdo ordaindu behar diren kuotak (10'6 hileko kuotak) honako hauek izango dira:

Sarrerak	Eskolatzea	Jantokia	Esk.+ jantokia
4.500 € edo gutxiago	40 €	84 €	124 €
4.500,01 €tik 5.500 €ra	54 €	84 €	138 €
5.500,01 €tik 6.650 €ra	67 €	84 €	151 €
6.650,01 €tik 7.980 €ra	93 €	84 €	177 €
7.980,01 €tik 9.300 €ra	109 €	95 €	204 €
9.300,01 €tik 10.700 €ra	146 €	95 €	241 €
10.700,01 €tik 12.400 €ra	175 €	95 €	270 €
12.400,01 €tik 15.000 €ra	211 €	95 €	309 €
15.000,01 €tik gora	234 €	95 €	329 €

** Urteko per capita errenta kalkulatzeko da 2012ko Pertsona Fisikoen Errenta Aitorpenaren zerga oinarria (507, 8810 eta 8808 laukien batuketan, 708 laukikoa kenduta) edo aitak eta amak edo tutore legalak justifikatutako diru sarrera guztiak, zati familia osatzen duten kide kopurua, barne plaza eskatzen duen pertsona.

Kasu guztietan aitorpena izango da aita-amaren gastu justifikatu guztiak, salbu banantze epaia edo dibortzio kasuetan, edo neurri legalak direnean ezkontzaz kanpoko seme-alaba daudelako. Kasu horretan, kontuan hartuko da adingabekoaren guarda eta zaintza duen gurasoaren aitorpena eta bere zerga oinarriari gehituko zaio epaian finkatutako urteko diru kopurua.

- Finkatzen den epearen barruan, 2012 urteko diru sarreraren egiaztagiria edo aitorpena aurkezten ez duenari, ikasturte osoan aplikatuko zaio gehieneko kuota.

- Ikastetxean bi seme-alaba dituen familiarik %50eko deskontua egingo zaio 2. seme-alabari dagokion eskolatze-aldiko eta jantokiko kuotetan, gutxieneko kuota muga izango delarik.
- Ikastetxean hiru seme-alaba edo gehiago dituen familiek aurretik aipatutako deskontua izango dute bigarren seme-alabarengatik, eta gutxieneko kuota hirugarren seme-alabarengatik edo hurrengoengatik.
- Bi anai-arreba-ahizpek jantokia erabiltzen dutenean, lehenak errentan oinarritutako kuota ordainduko du eta bigarrenak gutxieneko kuota.
- 8 hilabete azpiko neska-mutilek, familiek ekartzen duten esnea baino jaten ez dutenak, ez dute ordainduko denboraldi honetan jantokiari dagokion kuota.

Oharra: Tafallan erroldatuta ez dauden haurrek ez dute bere gain hartuko titularra den Udalari dagokion moduluko ordainketaren zatia.